

NOLA ERAGIN NIRE ENPRESAKO BERRIKUNTZAREN KUDEAKETAN

EMAN IZENA




DATA ETA ORDUTEGIA	Osteguna, ekainak 5. 9:30etatik 13:30etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea, 203, Zamudio, Bizkaia. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea.
IRAUPENA	4 ordu.
PLAZAK	30
NORENTZAT	<ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntzan lehen urratsak emateko edo berrikuntza kudeatzeko prozesua hobetzeko interesa duten 10 langile baino gehiagoko ETEentzat. • Kasu praktikoen bidez enpresa-berrikuntzaren oinarriak ezagutu eta finkatzeaz gain, euren enpresan berrikuntza nola kudeatu ikasi nahi duten Zuzendarientzat eta sailetako kudeatzaileentzat. <p>*Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.</p>

IKASKUNTZA HELBURUAK

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak honako erronka hauei erantzuteko irizpideak eta tresnak ematea da:

- Enpresa-berrikuntzaren oinarriak finkatzea eta berrikuntzak enpresaren estrategiari egiten dion ekarpena finkatzea.
- Berrikuntzaren kudeaketa-prozesua ulertzea eta hari heltzeko moduak bereiztea: unean uneko berrikuntzaren kudeaketa (berrikuntza-proiektua) eta sistematika (estrategia, berrikuntza-proiektuen zorroa).
- Berrikuntza kudeatzeko tresnak ezagutzea eta edukitzea.
- Funtsezko informazioa lortzea berrikuntzari laguntzeko baliabideak erraz eskuratzeko.
- Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza kudeatzeko kasu praktikoak.



PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

1. Berrikuntza ETEetan

- Zer da berrikuntza enpresaren esparruan?
- Zergatik eta zertarako berritu ETEan?
- Kudeatu al daiteke berrikuntza?

2. ETEen berrikuntzaren kudeaketa

- Non kokatzen gara gure enpresan?
- Berrikuntzari heltzeko moduak: aldizkakoa edo sistematikoa.

3. ETEetan berrikuntza kudeatzeko esparruak eta tresnak

- Berrikuntza-estrategia.
- Berrikuntza kudeatzeko prozesua.
- Berrikuntza-proiektuen zorroa.
- Inpaktuak eta emaitzak neurtzeko adierazleak.

4. Enpresa txiki eta ertainen eskura dauden baliabidea

- Berritzen Laguntzeko Eragileen Sarea.
- Jakintza-erakundeak eta irtenbide espezializatuak.
- ETEentzako finantzaketa-tresna eta zerbitzu nagusiak.

5. Berrikuntzaren kudeaketan esperientzia duten enpresen kasuak

NOREKIN

ROBERTO MANSO
DEL CAÑO

Innobasque -
Berrikuntzaren Euskal
Agentziako Proiektu
arduraduna.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea), Zuzendaritza Garapenerako masterrarekin (Deustuko Unibertsitatea). Negozio-ereduetako prestakuntza osagarria, berrikuntzaren kudeaketa, 4.0 industria, metodologia arinak, eta euskal enpresa-sarea eta I+G+b euskal sistema ezagutzea.

2013an Innobasquen sartu zenetik, Enpresetako Berrikuntzaren arloan garatu du bere ibilbide profesionala. Negozio-ereduetako berrikuntzarekin eta berrikuntzaren kudeaketarekin lotutako proiektuak gidatu eta koordinatu ditu. Euskal Berrikuntza Maparen, soluzioen bilatzailearen, kasu praktikoen eta Berrikuntzaren Euskal Ekosistemaren agentzien arduraduna da. Gainera, enpresei aholkuak ematen dizkie, berrikuntzari esker dituzten erronkak eta arazoak pixkanaka lantzen lagunduz.

OLGA GÓMEZ
GERBOLÉS

Innobasque -
Berrikuntzaren Euskal
Agentziako Proiektu
arduraduna.

Ekonomia Zientzietan lizentziatua, Eskualde eta Hiri Garapenean espezializatua (UPV/EHU). Prestakuntza osagarria du arlo hauetan: Teknologiaren eta berrikuntzaren kudeaketa erakundeetan, Enpresa-lehiakortasuna eta Eskualde-garapena, Aldaketaren Kudeaketa eta Benetako Parte-Hartzea, *Design Thinking*, Berrikuntza-prozesuaren Kudeaketa eta Hobekuntza. Lankidetzako berrikuntza-metodologiei eta -esperientziei buruzko hainbat argitalpenetan parte hartu du.

1999an Enpresa Kudeaketako Ezagutzaren Klusterrean eta 2007an Innobasquen lanean hasi zenetik, bere ibilbide profesionala garatu du lankidetzako berrikuntzako aholkularitzan, pertsonetan oinarritutako kudeaketan, berrikuntza-talde irekien ikerketan eta aktibazioan, eta berrikuntza-sare eta -komunitateen erakuntzan. Berrikuntza irekiko proiektuak garatze-ra bideratu ditu gai hauek, berrikuntzako ekosistemaren integrazioa eta sektore ezberdinetan (industria, nekazaritzako elikagaiak, osasuna...) inpaktua bilatuz.